

GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

URTEKO TXOSTENA - 2020

> 2021eko otsaila

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ogasun eta Finantza
Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de
Hacienda y Finanzas

AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatzen ditu hilero Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, lurralde horretako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera. Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da. Argitalpen honetako informazioa lortzeko, **Gipuzkoan sozietate egoitza duten enpresa ez-finantzarioek** aurkeztutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpenak erabili dira.

Hileroko txosten horien osagarri bezala, urteko txosten hau prestatzen da. Izan ere, enpresa horien BEZaren urteko aitortpenak ere oso erabilgarriak dira; aldagai nagusien urteko bilakaera zein izan den kalkulatzeko aukera emateaz gain, informazio estrukturalari buruzko oso informazio interesgarria ematen du. Dena den, ez da ahaztu behar lagin bat aztertzen ari garela, eta nahiz eta adierazgarritasun handia izan lagin horrek Gipuzkoako ekonomian, ezaugarri jakin batzuk dituela, eta ondorioz, datuak orokortzerakoan kontuz jokatu behar dela.

Urteko aitortpenetan jasotako informazioa hiru atal nagusitan banatuta dago:

1. **Sektorekako sailkapena.** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan aitortutako epigrafe nagusitik abiatuta, enpresak 20 jarduera talde nagusitan sailkatuta daude.
2. **Enpresen tamainaren arabeko sailkapena.** Horretarako, enpresek 2019an izandako langile kopurua hartu dugu kontuan, eta 5 taldetan banatu ditugu.
3. **Eskualdeen arabeko sailkapena.** Enpresek aitortutako sozietate helbidearen udalerria kontuan hartuta, eskualdeen arabeko sailkapen bat egiten dugu, eta bertan Donostia beste eskualde bat gehiago da, probintziako hiriburua izateak ematen dizkion berezigarriengatik.

EZAUGARRI NAGUSIAK

➤ 2020an Gipuzkoako enpresen salmentak %10,1 jaitsi dira


Pandemiaren eraginak, alarma egoeraren deklarazioak, nahitaezko konfinamendu neurriek eta mugikortasuna eta jarduera ekonomikoa mugatzeko neurriek Gipuzkoako enpresen salmenten %10,1eko beherakada eragin dute. Hori 2008/2009ko krisiaz geroztik izan den ekitaldi okerrera izan da, azken urte horretan izandako jaitsieraren erdira ere iritsi ez bada ere (-%20,5).

Urteko atzerakada hori pixka bat txikiagoa izan da barneko salmentetan (-%9,1), eta esportazioetan, berriz, nabarmenagoa (-%11,9).

1. taula. GIPUZKOAKO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (urte arteko bariazio tasa)

	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak	Inportazioak
2006	7,1	6,6	8,4	11,9
2007	7,1	6,1	10,0	12,3
2008	0,0	-1,5	4,6	0,0
2009	-20,5	-20,2	-21,6	-37,4
2010	2,1	-4,6	21,6	28,4
2011	0,5	-5,0	12,8	11,0
2012	-5,1	-8,0	0,4	-8,7
2013	-3,6	-5,4	-0,5	-1,0
2014	3,3	3,3	3,2	1,2
2015	4,9	3,0	8,2	11,3
2016	0,4	1,7	-1,8	-5,6
2017	7,5	9,5	4,1	14,0
2018	6,6	5,8	8,0	10,5
2019	2,8	2,5	3,4	3,0
2020	-10,1	-9,1	-11,9	-13,5

1. grafikoa – SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)




EZAUGARRI NAGUSIAK

➤ **Apur bat jaitsi da esportazioek Gipuzkoako enpresen salmentetan duten garrantzia**

Krisi hori mundu osoko krisia izan da. Nazioarteko merkataritzak kalte gogorrak izan ditu, eta herrialde gehienetan jardura ekonomikoa gelditu izanak aldaketak eragin ditu mundu osoko hornikuntza eta ekoizpen kateetan.

Gipuzkoako enpresen kasuan, 2020an barruko salmentek (-%9,1) kanpoko salmentek (-%11,9) baino portaera hobea izan dutelako, esportazioek salmenta osoetan duten pisua %34,9tik %34,2ra jaitsi da; aldiz, aldi berean barruko salmenten pisua %65,1etik %65,8ra igo da. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar 2008ko krisialdiaren aurreko aldietan, 2005-2006 urteetan, esportazioen pisua %25 ingurukoa zela; beraz, hamabost urteko epean kanpoko salmentek 10 puntu erlatibo irabazi dituzte.

2. grafikoa – Salmenta osoek 2019 eta 2020an izandako banaketa

➤ **Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso handia da**


Hala ere, Gipuzkoako ekonomiak kanporako irekiera maila oso altua izaten jarraitzen du: salmenten 100 euro bakoitzeko 34,2 euro kanpoko merkatuetan bideratzen dira. Gipuzkoako enpresen esportazioen 3 helmuga nagusiak, hurrenkera horretan, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua dira; guztira esportazioen %35 baino gehiago dira. Baina horrek beste ondorio bat ere badu: Gipuzkoako enpresak gero eta sentiberagoak dira herrialde horien bilakaera ekonomikoarekiko. Eta, bereziki, Brexitaren bilakaerari eta Gipuzkoako esportazioetan izan duen eraginari erreparatu beharko zaio.

Salmenta horien norakoa zehatzago aztertuz gero, Europar Batasunera egindakoak neurri handiagoan murriztu direla ikus daiteke (-%12,9); EBtik kanpo egindako esportazioak %10,1 jaitsi dira.

Portaera desberdin horren ondorioz, EBrako esportazioek pisua galdu dute: %63,7tik %63,0ra (0,7 puntu gutxiago). Bestalde, munduko gainerako lekuetara egindako esportazioak %37,0 izan ziren, eta iaz %36,3.

EZAUGARRI NAGUSIAK


3. grafikoa – Esportazioek EBra eta munduko gainerako herrialdetara 2019 eta 2020an izan duten banaketa



2020an inportazioak %13,5 jaitsi dira. Gipuzkoako enpresen inportazioak hornitzen dituzten herrialde nagusiak Frantzia, Alemania, Txina eta Italia dira. Lauren artean inportazio guztien erdia baino gehiago metatzen dute. Krisiak nabarmen murriztu du etxeetako kontsumoa, eta, horren ondorioz, murriztu egin da kontsumitzeko produktuen inportazioa; bestalde, enpresen inbertsioa ere jaitsi egin da, eskaerak erortzearen ondorioz, eta, beraz, bitarteko produktuen inportazioak ere murriztu egin dira.

Kasu honetan, aztertutako bi arloek esportazioen antzeko portaera erakusten dute: EBtik egindako erosketak EBtik kanpotik egindakoak baino gehiago murriztu dira (-%14,8 eta -%9,2, hurrenez hurren). Horregatik, EBtik egindako inportazioen pisu erlatiboa 1,2 puntu jaitsi bada ere, Gipuzkoako enpresen inportazioen 3/4 baino gehiago EBko herrialdeetatik datoz.

4. grafikoa - Inportazioek eremuen arabera 2019 eta 2020an izan duten banaketa



Esportazioen bilakaera (-%11,9) inportazioak (-%13,5) baino pixka bat hobea izan da, eta ondorioz, merkataritzako estaldura ratioa edo saldoa pixka bat igo da: 2019an %219 zen, eta orain %223 da. Oso datu positiboa da, esportazioak inportazioak baino 2,23 aldiz handiagoak baitira. Kontuan izan behar dugu datu horiek txosten honetan aztertutako laginari dagozkiola; Gipuzkoako ekonomia osoa kontuan hartzen badugu, estaldura ratioa zertxobait txikiagoa da, %193 ingurukoa; hau da, esportazioak inportazioen ia bikoitza dira.

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA *


➤ **Sektoreen arteko banaketan industriak pisua galdu du (-1,7 puntu), eraikuntzak bezala (-0,3 puntu); hori guztia, zerbitzuen onerako (+2,0 puntu).**

2020an salmentak sektore guztietan jaitsi dira: industrian (-%12,9), eraikuntzan (-%14,7) eta zerbitzuetan (-%5,5).

Zerbitzuen sektorea besteekin alderatuta gutxiago murriztu denez, aldaketa txiki bat gertatu da sektoreen arteko banaketan. 2020an, industria salmenten %52,6 zen, eta aurreko urtean, berriz, %54,3. Eraikuntzaren sektoreko partaidetza murriztu egin da, 2019ko %6,1etik egungo %5,8ra. Eta bi sektore horien 2,0 puntuko galera hori zerbitzuen sektoreak irabazi du; izan ere, 2019an Gipuzkoako enpresen salmenta osoen %39,7 izatetik, %41,7 izatera igaro da.

Nolanahi ere, beharrezkoa da emaitza horiek zehaztea, txosten honetan aztertutako laginaren ezaugarriak kontuan hartuta, orri-oineko oharrean adierazten den bezala. Hasiera batean, krisiak eragin handiagoa izan du konfinamenduarekin, urruntze sozialerako neurriei eta administrazioak agindutako nahitaezko itxierarekin lotura handiagoa duten jarduera sektoreetan, hala nola turismoan, ostalaritzan, txikizkako merkataritzan edo zerbitzu pertsonaletan. Adar horiek, zehazki, eta oro har, zerbitzuen sektore osoa ez dago behar bezala ordezkaturik aztertutako laginean; beraz, egia esan, eta ekonomia osoari dagokionez, baliteke zerbitzuen sektoreko salmenten beherakada txosten honetan adierazitakoa baino askoz handiagoa izatea.

5. grafikoa - Salmenta osoek sektoreen artean 2019 eta 2020an izandako banaketa




* Aztertutako laginak bi ezaugarri nagusi ditu: alde batetik, enpresa finantzarioak kanpo geratzen dira; eta bestetik, hilero BEZaren aitorpena aurkeztzen duten enpresak bakarrik hartzen dira; hau da, nolabait zerbitzu sektoreak ordezkagarritasun txikiagoa du, eta enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkaturik laginean. Azkenean, bi faktore horien ondorioz, industriaren pisua benetakoa baino handiagoa da; eta alderantziz, zerbitzuena txikiagoa. Horrela, 2019ko EUSTATen kontu ekonomikoen arabera, Gipuzkoan industriak Barne Produktu Gordinaren %28,3 suposatzen zuen, eraikuntzak %6,4 eta zerbitzuek %65,3.

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ **Industria garrantzitsua izan arren, sektore maila xehatuago baten ikuspuntutik, merkataritzaren azpisektorea aipagarriena da, salmenta osoen %26,2 hartzen baitu**

Sektoreak 20 taldetan sailkatuta, agerian geratzen da merkataritzaren azpisektorea aipagarriena dela 2020an izandako salmenta osoetan (kopuru osoaren %26,2); horren atzetik, tarte luze batera, beste hauek aurkitzen dira: makineria (%14,1), garraio-materiala (%8,3), beste zerbitzu komertzialak (%7,8), eta, azkenik, garraioa eta komunikazioak (%6,9)

6. grafikoa - 2020an salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




2019ko pisuarekiko aldaketa nagusiak honako hauek izan dira: pisu gehien irabazi duen adarra merkataritza izan da, 2,2 puntuko hazkundearekin (%24,0tik %26,2ra pasa da), eta ondoren elikaduraren adarra, 0,4 puntuko hazkundearekin (%3,4tik %3,8ra). Pisu erlatiboaren galera handiena garraio-materialean izan da (%9,0tik %8,3ra pasa da, 2019an baino 0,7 puntu gutxiago).

Salmenta osoen bariazioari dagokionez, aztertutako 20 sektoreetatik 3tan bakarrik igo dira salmentak: nekazaritza eta abeltzaintza eta arrantza (+%5,8), elikadura (+%2,4) eta ehungintza eta oinetakoak (+%1,1). Gainerako 17 adarretan salmentak jaitsi egin dira 2019tik. Honakoak nabarmentzen dira: merkataritzakoak ez diren beste zerbitzu batzuk (-%27,0), metalezko eraikuntzak (-%17,7), garraio-materiala (-%16,7), oinarritzko metalak (-%16,6) eta material elektrikoa (-%16,1).

SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA


7. grafikoa - 2020an salmenta osoen bariazio handienak eta txikienak izan dituzten adarrak (%)



➤ Industria adarrak dira nagusi Gipuzkoako enpresen esportazioetan

Gipuzkoako enpresen kanpo salmenten oinarria ekipo ondasunei lotutako industria adarrak dira: makineriari eta garraio-materialari dagokienez, esportazio guztien %24,0 eta %19,2 dira, hurrenez hurren; oinarrizko metalgintza %9,3 da, metalezko gaiak %8,0 eta merkataritza %7,9. Bost adar horien artean Gipuzkoako esportazio guztien %68,3a hartzen dute.

8. grafikoa - 2020an esportazioen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

Adar esportatzaileen artean, 2019. urtearekin alderatuta, pisu erlatiboa irabazi duen bakarra merkataritza izan da, %7,3 izatetik %7,9 izatera igaro baita, nahiz eta aurreko urtean baino %5,3 gutxiago esportatu duen (baina esportazio osoen -%11,9ko beherakadaren gainetik). Esportazio gehien izan duen adarrak, makineriak, 0,1 puntu galdu ditu (%24,1etik %24,0ra pasa da); izan ere, esportazioak %12,1 murriztu dira 2019tik.

- **Garraio-materialaren adarrean salmenten %78,9 kanpoan egiten da, eta enpresen multzo osoaren batez bestekoa %34,2 da**

Esportazioek salmenta guztien aldean zer pisu hartzen duten begiraturik, ikus daiteke hainbat adarretan beren salmenten erdia baino gehiago kanpoan egiten dela.

9. grafikoa – 2020an esportazioek salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)



Garraioko materialaren adarrean esan daiteke salmenta osoen ia lau bostenak (%78,9) kanpoko merkatuetan egiten direla; aldiz, enpresen multzo osoaren batez bestekoa %34,2 da. Beste 6 adarrek ere erdia baino gehiago kanpoan saltzen dute: makineria (%58,4), oinarritzko metalgintza (%58,3), metalezko gaiak (%56,9), material elektrikoa (%55,1), metalgintzakoa ez den industria (%52,7) eta metalezko eraikuntzak (%51,5).


TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA *

➤ **Enpresa txiki eta ertainek pisu oso handia dute Gipuzkoako ekonomian: salmenta osoen %64,3 egiten baitituzte**

Ezaguna da Gipuzkoako enpresa sarearen barruan enpresa txiki eta ertainak nagusi direla. 250 langile baino gutxiago dutenak halakotzat hartuta, salmentetan duten garrantzi kuantitatiboa handia da, salmenta horien %64,3 egiten baitituzte; hau da, salmentetako 100 euro bakoitzeko, ia-ia 65 euro enpresa horiexek saltzen dituzte.

Bestetik, enpresa handienek (250 langile edo gehiago) salmenta osoen %35,7 egiten dute.

10. grafikoa - Enpresa taldeak 2020an salmenta guztien aldean izandako pisu erlatiboarekiko (%)



2019arekin alderatuta, salmentek behera egin dute talde guztietan, eta, bereziki, talde txikienean (-%16,7), 25 langile baino gutxiagokoetan. Talde horretan, barruko salmentak (-%18,5) esportazioen bikoitza baino gehiago jaitsi dira (-%7,4). Salmenten bigarren beherakada handiena 50-100 langileko enpresetan gertatu da (-%13,5), eta kasu horretan ere, barruko salmenten beherakadak esportazioen beherakadaren bikoitza izan da. Hala ere, langile gehien dituzten bi taldeetan (100etik 250era, eta 250etik gora), esportazioen beherakadak gainditu egiten du barruko salmenten beherakada, eta, gainera, nabarmen gainditzen du.

* Aztertutako laginak duen ezaugarri nagusietako bat da, BEZren aitortpena hilero aurkezten duten enpresak hartzen direla; hau da, nolabait enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkatuta laginean. Beraz, errealitatean Gipuzkoan enpresa txikien dute pisua hemen erakusten dena baino handiagoa izango da.


TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ Enpresa handienek profil esportatzaile argiagoa dute

2020ko datuen arabera, argi eta garbi geratzen da enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan kanpoan gehiago saltzen dela. Hori horrela, 250 langile edo gehiagoko enpresek beren salmenta guztien %41,9 saltzen dute kanpoko merkatuetan; enpresa txikienetan, aldiz, %17,4 da. Portzentaje hori argi eta garbi igotzen da enpresaren tamaina handitzen den neurrian

Gaur egun internazionalizazioaren erronka, enpresak mantendu eta hazteko funtsezko faktore bat da. Globalizazioaren testuinguruaren barruan, eta barruko merkatuen gelditzea prozesua ikusirik, kanpoko merkatuetara irekitzea, enpresak zabaltu eta hazteko aukera argi bat da, eta enpresen lehiakortasunean oinarritu behar da. Eta, nahiz eta egia izan lehiakortasuna kanpoko merkatuetan sartzeko funtsezkoa dela, datuen arabera dirudi enpresen dimentsioa eta tamaina ere garrantzitsuak direla.

11. grafikoa – 2020an esportazioen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA


➤ Goierrik du pisu erlatiborik handiena salmenta osoetan

Goierrik lurraldeko salmenta guztien %17,7 hartzen du, eta 2019arekin alderatuta, 0,8 puntu galdu ditu. Izan ere, salmenta guztiak -%14,2 jaitsi dira, jaitsiera orokorraren -%10,1 baino gehiago, eta Bidasoa Behea (+%10,6), Donostialdea (-%6,0) eta Oarsoaldea (-%6,1) eskualdeen aldakuntzaren gainetik.

Donostia bigarren postuan dago salmenta osoei dagokienez: %17,5 metatzen du, 2019an baino 0,4 puntu gutxiago, salmenta osoak -%12,4 jaitsi baitira. Salmenta osoen pisu erlatiboari dagokionez, hirugarren lekuan daude egoitza Debagoienan duten enpresak, lurraldeko salmenten %12,7 metatzen baitute; eta laugarren lekuan Donostialdea dago, salmenta guztien %12,3ekin.

2019. urtearekin alderatuta, salmenta osoen gehikuntza izan duen eskualde bakarra Bidasoa Behea izan da (+%10,6), batez ere barneko salmenten igoeraren ondorioz (+%13,8), esportazioak -%5,9 jaitsi baitira. Bestalde, salmenta osoen beherakadarik handiena Debabarrenan izan da (-%17,2).

12. grafikoa - Salmenta osoen pisu erlatiboa eskualdeen arabera 2020an (%)




ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ Goierriko enpresek beren salmenten erdia baino gehiago kanpoko merkatuetan saltzen dituzte

Oro har, esan daiteke Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso altua dela; eta batez ere Goierri, Debagoiena, Tolosaldea, Debabarrena, Urola Kosta eta Oarsoaldeko enpresena. Horrela, Goierriko enpresek kanpoko merkatuetan beren salmenta osoen %57,0 saltzen dute, eta Debagoienakoak %48,3.

Aitzitik, Donostian esportazioak nekez salmenta osoen %7,2 dira, hau da, lurraldeko %34,2ko batez bestekotik oso urruti dago; horren arrazoia da eraikuntzak eta hirugarren sektoreak (merkataritza, zerbitzuak...) hiriburuan duen pisu handia.

13. grafikoa - Eskualdeen arabera sailkapena – 2020an esportazioek salmenta osoen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

Estatistiken eranskina

Oharra.

Eranskin honetan jasotako datuen taulak populazio konstantearen arabera datuei dagozkie. Hau da, bariazio tasak bi urtez jarraian zergaldi berean aitortzen duten enpresen gainean kalkulatu dira. Populazio konstantearen arabera bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egozte

URTEARTEKO BARIAZIOEN LABURPENA

1 Taula. Salmenta osoak: barrukoak eta kanpokoak.
(urtearteko bariazio tasak,%)

Epealdia	Salmenta osoak	Barruko salmentak	Esportazioak
2006	7,1	6,6	8,4
2007	7,1	6,1	10,0
2008	0,0	-1,5	4,6
2009	-20,5	-20,2	-21,6
2010	2,1	-4,6	21,6
2011	0,5	-5,0	12,8
2012	-5,1	-8,0	0,4
2013	-3,6	-5,4	-0,5
2014	3,3	3,3	3,2
2015	4,9	3,0	8,2
2016	0,4	1,7	-1,8
2017	7,5	9,5	4,1
2018	6,6	5,8	8,0
2019	2,8	2,5	3,4
2020	-10,1	-9,1	-11,9

**2 Taula. Salmenta osoak produkzio sektoreen arabera
(urtearteko bariazio tasak,%)**

Epealdia	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
2006	13,1	7,7	-1,6
2007	7,5	11,8	5,6
2008	1,8	10,5	-4,8
2009	-25,1	-11,1	-14,8
2010	6,0	-21,8	2,1
2011	3,5	-21,6	0,3
2012	-5,1	-25,3	-1,2
2013	-4,1	-17,4	-0,4
2014	3,4	0,9	3,4
2015	5,4	-7,5	6,3
2016	-0,7	-5,4	2,9
2017	6,3	5,1	9,6
2018	6,5	0,7	7,4
2019	2,6	-2,0	4,0
2020	-12,9	-14,7	-5,5

3 Taula. Esportazioak eta inportazioak ingurune geografikoen arabera
(urtearteko bariazio tasak,%)

Epealdia	Esportazioak			Inportazioak		
	Guztira	UE	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira	UE	Munduko gainerako herrialdeak
2006	8,4	6,3	11,7	11,9	10,4	17,4
2007	10,0	13,3	5,3	12,3	10,7	18,1
2008	4,6	4,2	5,3	0,0	-1,6	5,3
2009	-21,6	-27,1	-13,2	-37,4	-35,8	-42,2
2010	21,6	12,7	32,7	28,4	32,1	16,0
2011	12,8	20,3	4,8	11,0	12,5	5,3
2012	0,4	3,2	-3,1	-8,7	-8,6	-9,2
2013	-0,5	-1,5	0,7	-1,0	-1,2	-0,5
2014	3,2	10,1	-5,4	1,2	0,5	3,7
2015	8,2	6,0	11,4	11,3	10,3	15,5
2016	-1,8	5,7	-12,2	-5,6	-4,7	-8,5
2017	4,1	-2,6	15,1	14,0	13,0	17,7
2018	8,0	17,4	-5,3	10,5	8,4	18,6
2019	3,4	4,5	1,4	3,0	1,2	9,6
2020	-11,9	-12,9	-10,1	-13,5	-14,8	-9,2

4 Taula – SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA - (urtearteko bariazio tasak,%)

Taldea	Izena	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
		2019ko pisua	2020ko pisua	Bar. 2020/2019	2019ko pisua	2020ko pisua	Bar. 2020/2019	2019ko pisua	2020ko pisua	Bar. 2020/2019	
	Guztira	100,0	100,0	-10,1	100,0	100,0	-9,1	100,0	100,0	-11,9	34,2
01	Nekazaritza, abeltzaintza arrantza	0,0	0,0	5,8	0,0	0,0	8,6	0,0	0,0	-48,2	2,5
02	Energia eta ura	0,5	0,5	-0,3	0,6	0,7	-1,5	0,2	0,2	0,0	14,0
03	Oinarrizko metalgintza	5,9	5,4	-16,6	3,7	3,5	-14,7	10,0	9,3	-17,9	58,3
04	Metalgintzakoa ez den industria	1,0	1,0	-15,4	0,8	0,7	-15,8	1,6	1,5	-15,1	52,7
05	Kimika	1,4	1,5	-5,2	1,3	1,3	-8,1	1,7	1,9	-1,0	42,6
06	Metalezko eraikuntzak	5,1	4,7	-17,7	3,8	3,5	-16,7	7,6	7,0	-18,6	51,5
07	Metalezko gaiak	4,9	4,8	-11,9	3,4	3,2	-15,7	7,7	8,0	-8,8	56,9
08	Makineria	14,6	14,1	-13,3	9,5	8,9	-14,9	24,1	24,0	-12,1	58,4
09	Material elektrikoa	2,8	2,6	-16,1	2,2	1,8	-26,1	3,9	4,1	-5,7	55,1
10	Garraio materiala	9,0	8,3	-16,7	2,8	2,7	-14,2	20,4	19,2	-17,2	78,9
11	Elikagaiak	3,4	3,8	2,4	4,2	4,7	2,0	1,9	2,2	3,6	19,8
12	Ehungintza eta oinetakogintza	0,1	0,1	1,1	0,1	0,1	5,5	0,1	0,1	-7,9	31,0
13	Zurgintza eta altzarigintza	0,5	0,5	-0,2	0,5	0,5	-2,7	0,5	0,5	4,3	36,4
14	Papergintza eta grafikak	3,7	3,6	-13,8	3,4	3,1	-17,2	4,2	4,4	-8,7	42,1
15	Kautxua eta plastikoa	1,5	1,6	-0,4	1,3	1,3	-6,8	1,9	2,3	7,7	47,4
16	Eraikuntza	6,1	5,8	-14,7	9,2	8,7	-14,0	0,3	0,1	-56,5	0,7
17	Merkataritza	24,0	26,2	-1,7	32,9	35,8	-1,3	7,3	7,9	-5,3	10,2
18	Garraioa eta komunikazioak	6,9	6,9	-9,4	7,9	7,6	-12,3	4,9	5,6	-0,3	27,5
19	Beste zerbitzu komertzialak	7,9	7,8	-11,1	11,0	10,9	-10,0	2,0	1,7	-22,1	7,7
20	Beste zerbitzu ez komertzialak	1,0	0,8	-27,0	1,5	1,2	-27,3	0,0	0,0	89,7	0,6

5 Taula – ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA
(urtearteko bariazio tasak,%)

TAMAINA	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
	2019ko pisua	2020ko pisua	Bar. 2020/2019	2019ko pisua	2020ko pisua	Bar. 2020/2019	2019ko pisua	2020ko pisua	Bar. 2020/2019	
Guztira	100,0	100,0	-10,1	100,0	100,0	-9,1	100,0	100,0	-11,9	34,2
25 langile baino gutxiago	16,6	15,4	-16,7	21,6	19,4	-18,5	7,5	7,9	-7,4	17,4
25 - 49	13,4	13,5	-8,8	15,3	15,1	-10,4	9,8	10,6	-4,4	26,9
50 - 99	12,3	11,8	-13,5	12,4	11,4	-16,4	12,1	12,6	-7,9	36,6
100 - 249	22,2	23,6	-4,3	21,0	22,8	-1,5	24,3	25,2	-8,7	36,6
>=250	35,6	35,7	-9,9	29,8	31,5	-4,0	46,3	43,7	-16,9	41,9

6 Taula – ESKULADEEN ARABERAKO SAILKAPENA
(urtearteko bariazio tasak,%)

ESKULADEAK	SALMENTA OSOAK			BARRUKO SALMENTAK			ESPORTAZIOAK			ESPORTAZIOAK SALMENTEN GAIN
	2019ko pisua	2020ko pisua	Bar. 2020/2019	2019ko pisua	2020ko pisua	Bar. 2020/2019	2019ko pisua	2020ko pisua	Bar. 2020/2019	
Guztira	100,0	100,0	-10,1	100,0	100,0	-9,1	100,0	100,0	-11,9	34,2
Bidasoa Behea	9,3	11,4	10,6	11,9	14,9	13,8	4,4	4,7	-5,9	14,2
Debabarrena	6,6	6,1	-17,2	5,9	5,2	-19,8	7,9	7,8	-13,5	43,6
Debagoena	13,6	12,7	-16,4	11,0	9,9	-18,0	18,5	17,9	-14,5	48,3
Donostialdea	11,8	12,3	-6,0	13,3	13,7	-6,6	9,0	9,8	-4,6	27,1
Goierra	18,5	17,7	-14,2	11,8	11,5	-11,0	31,0	29,5	-16,3	57,0
Oarsoaldea	6,8	7,1	-6,1	6,9	6,9	-9,0	6,6	7,5	-0,4	35,9
Donostia	17,9	17,5	-12,4	25,4	24,7	-11,7	4,1	3,7	-21,7	7,2
Tolosaldea	7,0	7,0	-9,8	6,1	5,9	-11,9	8,7	9,2	-7,0	44,6
Urola Kosta	8,4	8,2	-12,1	7,6	7,2	-14,4	9,7	10,1	-8,6	42,1